



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2018ko urriaren 30a

129. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, hein batean aldatzen duena Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategina, zeina ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi baitzen. Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak aurkeztu du (2. or.).
- Foru Lege proposamena, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legea aldatzekoa. Akats zuzenketa (4. or.).

I SAILA:

Planak, komunikazioak eta programak:

- Nafarroako Foru Komunitatearen egoerari buruzko politika orokorreko eztabaidaren ondorioz 2018ko urriaren 18an eginiko Osoko Bilkurak onetsitako erabakiak (5. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, hein batean aldatzen duena Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testuategina, zeina ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi baitzen.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urriaren 29an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dien legegintza-ekimena erabiliz, Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak foru lege proposamen bat aurkeztu du, hein batean aldatzen duena Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testuategina, zeina ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi baitzen, eta eskatu du presako eta irakurketa bakarreko prozedurazapidetu dadin.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 110., 111., 148. eta 158. artikuluetan ezarritakoarekin bat, hona ERABAKIA:

1. Agintzea aipatu foru lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

2. Foru lege proposamena presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetzea.

3. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta Nafarroako Gobernuari adieraztea bere iritzia emateko epea zortzi egunekoa dela.

4. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, zeina bukatuko baita eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren aurreko egunaren eguerdiko hamabietan. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2018ko urriaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru Lege proposamena, hein batean aldatzen duena Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testuategina, zeina ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi baitzen

HITZAURREA

Auzitegi Gorenak, urriaren 3ko 3256/2018 zenbakiko epaiaren bidez, lege-doktrina gisa ezarri du pertsona fisikoen errentaren gaineko zergatik salbuetsita daudela Gizarte Segurantzatik jasotako amatasunagatik prestazio publikoak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari eta Sozietateen, Ez-egoiliarren Errentaren eta Ondarearen gaineko Zergen Legeen aldaketa partzialari buruzko azaroaren 28ko 35/2006 Legearen esparruan.

Euskal aldundiek Auzitegi Gorenak adierazitako zentzuan interpretatu dute pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko beren araudia; hartara, autonomia erkidego horretako amek ere baliatuko dute salbuespen hori.

Espainiako Konstituzioaren 14. artikulua ezarritako espainiar guztiak legearen aurrean berdinak izatearen printzipioa, eta debeku dela inolako diskriminaziorik egitea jaiotza, arraza, sexua, erlijioa, pentsamoldea edo beste edozein tasun edo inguruabar pertsonal edo sozial dela eta.

Nafarroako Zerga Ogasunaren arabera, Nafarroan pertsona fisikoen errentari buruzko zerga arautzen duen manua ezin da interpretatu halako moduan non zergak Nafarroan ordaintzen dituzten gurasoei ere aplikatuko bailitzaieke amatasungatik salbuespena; eta hori konparaziozko bidegabekeria denez gero, kendu egin beharra dago,

Konstituzioaren 9.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Kentze hori pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga aldatzen duen lege-arau baten bidez egin daiteke, gurasotasun-prestazioak salbuespen gisa aintzat hartzeko, eta aldaketa hori atzeraeraginduna izan daiteke, abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorrek ez baitu halakorik debekatzen, eta interesdunen aldekoagoa delako.

Artikulu bakarra. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategina.

2014ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginekin, ondotik ematen den testua izanen du ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 7. k) artikulua:

“7. artikulua. Errenta salbuetsiak.

k) Urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorren testu bateginaren VI. tituluko I. kapituluaren araututa dauden familia-prestazioak, bai eta administrazio publikoetako langile aktibo nahiz pasiboentzat seme edo alaba desgaitu bakoitzarengatik ezarritako familia laguntza ere.

Era berean, umezurtzei dagozkien pentsio eta sarrera pasiboak eta hogeita bi urte baino gutxiagokoak diren edo lan guztietarako ezinduak dauden biloben eta anai-arreben aldekoak, Gizarte Segurantzaren eta klase pasiboaren araubide publikoetatik jasoak eta, halaber, zurtasunarengatik jasotzen diren gainerako prestazio publikoak.

Modu berean, salbuetsiak egonen dira norbere konturako langile edo autonomoen Gizarte Segurantzako araubide berezian txertatu gabeko profesionaleri aipatu Gizarte Segurantzako araubide bereziaren alternatiba gisa diharduten gizarte-aurreikuspenetarako mutualitateek aitorturiko pres-

tazioak, baldin eta, betiere, aurreko bi paragrafoetan aurreikusi diren egoera berberetarako prestazioak badira; hots, Gizarte Segurantzak aipatu araubide berezian txertatuta dauden profesionalentzat aurreikusitakoak. Hauxe izanen da salbuetsitako kopuruaren muga: dagokion kontzeptuarengatik Gizarte Segurantzak aitortzen duen gehieneko prestazioaren zenbatekoa. Sobrakina lanaren etekin gisa zergapetuko da, eta, Gizarte Segurantzaren prestazioak lehen aipatutako mutualitateenekin batera gertatuz gero, ulertuko da lanaren etekina azken horietan gertatu dela.

Salbuetsiak egonen dira, halaber, Gizarte zerbitzuen arloan banakoentzako eta familientzako prestazioak eta laguntzak arautzen dituen ekainaren 28ko 168/1990 Foru Dekretuan ezarritako prestazio ekonomikoak, bai eta Gizarteratzerako eta errenta bermaturako eskubideak arautzen dituen Foru Legearen ezarritako errenta bermatua ere. Era berean, salbuetsiak egonen dira jaiotzagatik, adopzioagatik, gurasotasunagatik, seme-alabak norberaren kargura edukitzeagatik, adingabeak hartzeagatik, zurtasunagatik, haur batez baino gehiagoz erditzeagatik edo beste horrenbeste adoptatzeagatik edo minbiziak edo beste edozein gaixotasun larri jotako seme-alaba adingabeak zaintzeagatik emandako gainerrako prestazio publikoak, bai eta jaiotza-tasa sustatze eta langileen lana eta familiako bizitza ongi uztartze aldera kasuan kasuko deialdiaren bidez emandako familia-arloko laguntzak ere”.

Azken xedapenetan lehenengoa. Arauak emateko gaikuntza.

Nafarroako Gobernuak foru lege hau garatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak ematen ditu.

Azken xedapenetan bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek 2019ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra, legearen berean aurreikusitako ondorioekin.

Foru Lege proposamena, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legea aldatzekoa

AKATS ZUZENKETA

Akats bat aurkitu da 2018ko urriaren 15eko Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren erabakian, zeinaren bidez onartzen baitzen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamenaren izapidetzea. Aipatu erabakia 2018ko urriaren 19ko 124. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Hona hemen zuzenketa:

Bigarren paragrafoan, honako hau dioen tokian: "Legebiltzarreko Erregelamenduko 110. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat"; honako hau esan behar du: "Legebiltzarreko Erregelamenduko 110., 111., 148. eta 158. artikuluetan ezarritakoarekin bat".

Erabakiaren bigarren puntuan, honako hau dioen tokian: "2. Aipatu foru lege proposamena presako prozeduraz izapidetzea"; honako hau esan behar du: "2. Foru lege proposamena presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetzea".

Erabakian laugarren puntu bat eranstea. Hona horren testua, hitzez hitz: "4. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, zeina bukatuko baita eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren aurreko egunaren eguerdiko hamabietan. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio".

Iruñean, 2018ko urriaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznarez Igartza

I saila:
PLANAK, KOMUNIKAZIOAK ETA PROGRAMAK

Nafarroako Foru Komunitatearen egoerari buruzko politika orokorreko eztabaidaren ondorioz 2018ko urriaren 18an eginiko Osoko Bilkurak onetsitako erabakiak.

Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatua betetzeko, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen Nafarroako Foru Komunitatearen egoerari buruzko politika orokorreko eztabaidaren ondorioz 2018ko urriaren 18an eginiko Osoko Bilkurak onetsitako erabakiak.

Iruñean, 2018ko urriaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Nafarroako Foru Komunitatearen egoerari buruzko politika orokorreko eztabaidaren ondorioz 2018ko urriaren 18an eginiko Osoko Bilkurak onetsitako erabakiak

Lehena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Espainiako Gobernuarekin elkarlanean Estatuko 2018rako aurrekontu orokorren aurrekontu-exekuzioa burutu dezan Nafarroako Foru Komunitatearekin zerikusia duten gai guztiei dagokionez (AP-15 autobidea, N-121-A errepidea, Abiadura Handiko Trena eta abar), eta finantza aldetik jasagarriak izan eta Nafarroako Parlamentuak onetsi dituen inbertsioak egin ditzan.

Bigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ekonomia bizkortzeko eta enplegua sortzeko neurriak har ditzan, eta horretarako enplegu plan berri bat egin dezan, sindikatuekin eta Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioarekin (CEN) lankidetzan.

Hirugarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Foru Komunitateko Eskola Publikorako Plan Estrategikoa sor dezan, osagai hauek jasoko dituen:

– Ikasle behartsuen kontzentrazio tasak murrizteko eta ikasle horiek funts publikoekin

mantendutako ikastetxe guztien artean modu egokian banatzeko egutegia eta prozedura.

– Hezkuntza inklusiboaren berariazko mapa bat, giza baliabide eta antolaketa-baliabide gehigarriak orientatuko dituena.

– Ratioen murrizketa konplexutasun handiko ikastetxeetan.

– Ikasleen eskolatzeko berantiarra aintzat hartzen duen plangintza, plantillak taxutzeko orduan.

– Ikastetxeen funtzionamendu gastuaren gehikuntza.

– Lurralde-lankidetzako estrategia berariazko bat landa-eskola babesteko, toki administrazioen laguntzaz. Bertan aztertuko dira behar diren baliabideak, irakasleen berariazko prestakuntza, ikastetxe bakoitzeko zerbitzu osagarriak eta, arreta bereziz, garraioaren, jantokiaren eta ikasleentzako laguntza materialaren beharra.

Laugarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

– Foru Komunitatea jendegabetzearen erronkari aurre egiteko estrategia bat ezar dezan.

– Nafarroako landa-eremuetan bizi diren pertsonen bizi maila eta kalitatea igotzeko proposamenak egin ditzan, gure Komunitatean berdintasuna eta gizarte- nahiz lurralde-egitura hobetzeko, langabeziaren, jendegabetzearen eta zahartzearen azaroei aurre eginez.

– Foru Administrazioa, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa eta zehaztu beharreko beste erakunde batzuk bilduko dituen batzorde bat sor dezan, jendegabetzearen aurkako eta lurraldea egituratzeko aldeko talka-plan bat egiteko eta Nafarroako araudiaren exekuzioa eta landa-eremuetan benetan duen eraginkortasuna ebaluatzeko.

Bosgarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

– Susta ditzan, elkarrizketa sozialaren esparruan, lan denborak eta lanaldiak arrazionalizatzearekin zerikusia duten neurrietarako pizgarriak.

– Langileen bizitza profesionalaren eta pertsonalaren arteko oreka hobetze aldera antolaketan berrikuntzak egiteko ekimenak dituzten enpresei laguntzeko funtsa sor dezan. – Antolaketa berritzeko programen barruan laguntza lerro berezi bat ezarriko da lanaldi malgua edota telelana sustatzeko aplikazioen garapenerako.

– Enpresei telelana eta kontratu erdi-presenzialak garatzen lagun diezaien, pizgarriak emanez.

– Enpresa guztietan berdintasunerako planak abian jartzea susta dezan, behar den aholkularitza teknikoaren, jarraipenaren eta ebaluazioaren bitartez. Plan horietan beti jasoko da enpresaren barruan berdintasunerako politikak sustatzea eta abian jarritako bateratze neurrien berri zabaltzea gizonezko langileen artean.

– Lan Autonomoaren Nafarroako Kontseiluarekin ados jarrita, araugintzako neurri fiskal, tributu-neurri, lan arloko neurri eta abarrekoen zerrenda aurkez dezan, langile autonomoek familia, lana, bizitza soziala eta bizitza pertsonala bateratzeko duten eskubidearen eta zainketen erantzukidetzaren babesean aurrera egiteko.

– Funtzio publikoaren esparruan: amatasun eta aitatasun baimenak pareka ditzan, berdinak eta besterenezinak izateko. – Telelanaren eta ordutegi malguaren mekanismoa sustatu eta aplikatu dezan, ahal den sektoreetan.

– Egungo Reconcilia zigilua berrikusi eta hobetu dezan, berdintasunari eta bateratzeari dagokien proposatutako ekintzak zigiluari atxikitako erakunde guztietan beteko direla eta, batez ere, emaitzak izanen dituztela bermatzeko.

– Eskubide Sozialetako Departamentuak kudeatzen dituen egungo laguntzak berrikus ditzan, erantzukidetzari buruzko irizpideak ezartzeko eta laguntzen eskuragarritasuna bermatzeko.

Seigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

– Alde biko harreman leiala, gardena eta eraikitzailea ezar dezan Espainiako Gobernuarekin, Estatuaren eskumenekoak izanik batera kudeatu edo landu daitezkeen gaietan Nafarroaren interes orokorraren aldeko akordioak lortzeko.

– Espainiako Gobernuarekin akordioak lor ditzan, betiere Nafarroan adostasun zabala jaso behar dutenak, autogobernuan sakondu eta aurrera egiteko.

– Elkarrizketaren eta akordiorako borondatearen alde apustu egin dezan Espainiako Gobernuarekiko harremanetan.

Zazpigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

– Gizarteratzeko eta Errenta Bermaturako Eskubideak arautzen dituen azaroaren 11ko 15/2016 Foru Legean garatutako eskubideak mantendu eta finkatu ditzan, nafarrek baliabide ekonomiko egokiak eskura izaten jarraitzeko eta kalitatezko gizarteratze- eta laneratze-zerbitzuen onura jasotzeko. Eskubide horiek finkatzeak eragin positiboa du desberdintasuna eta pobrezia murriztean, batez ere haurrena, eta zailtasun gehien dituzten kolektiboak laneratzean, eta horrela gizarte kohesio handiagoa eta oparotasun handiagoa lortzen dira Nafarroako gizarte osoarentzat.

– Nafarrentzako eskubide sozialen bermea finkatu eta sakondu dezan garrantzi handiko hainbat esparrutan: adinekoentzako arreta, mendekotasuna, desgaitasuna, gaixotasun mentala, haurrak, gizarteratzea eta abar. Horretarako behar diren arau aldaketak bultzatuko dira, halako molde non eskubide horiek bermatu eta hedatuko baitira.

Zortzigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du nafarrei etxebizitza duinerako eskubide eraginkorra bermatzeko beharrezkoak diren politikak susta ditzan. Horretarako, behar diren arauzko eta legezko tresnak garatuko ditu, honako xede hauetan eragina izanen dutenak, besteak beste: etxebizitza hutsak baliaraztea, gazteei laguntzea emantzipazio prozesuetan, eta laguntza ematea hala behar duten Nafarroako familia guztiei.

Bederatzigarrena. Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du tokiko erakunde sarea udal autonomiaren, subsidiarotasunaren, lurralde-orekaren eta finantza-nahikotasunaren oinarritzko printzipioetatik abiatuta egokitzeko lan egiteko eta lan horren beharra defendatzeko, eta Nafarroako toki erakundeei beharrezkoak diren tresna teknikoak eta ekonomikoak emateko beren eskumenak garatu eta lurralde-oreka bermatu ahal izan dezaten Nafarroako eskualdeen garapen sozial eta ekonomikoan.

Nafarroako Parlamentuak beharrezkoa deritzo Toki Administrazioa erreformatzeari Gobernuak horretarako aurkeztu duen eta Parlamentuan

izapidetzen ari den lege-proiektuan planteatutako baldintza orokorretan, eta uste du proiektu hori onesten denean emanen zaiola hasiera Nafarroak XXI. mendearen hastapen honetan behar dituen toki entitateen multzoaren konfigurazioari.

Nafarroako Parlamentuak berariaz aitortzen ditu Nafarroaren lurralde-aniztasuna, horren errespetua, kanonen homogeneizazioa inposatzea saihestuz, eta hura ikusgai egitearen aldeko apustua, Komunitate osoaren garapenerako aberastasunaren eta balio erantsiaren erakusgarri gisa. Hala-ber, Nafarroako Parlamentuak konpromisoa agertzen du lurralde-kohesioa jarduketa-printzipioa izan dadin bere legegintza-jarduera osoan.

Hamargarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Genero berdintasunaren aldeko Nafarroako Itun handi baten buru izan dezan, generoarengatiko bereizkeriak errotik ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko lanean ari diren erakunde feministen eta emakume elkarten eskutik, barruan bilduko dituen Nafarroako Parlamentua osatzen duten taldeak, Nafarroako toki entitateak, eragile ekonomiko eta sozialak eta zeregin horri ekiteko prest dauden erakunde eta elkarte guztiak.

Hamaikagarrena. Nafarroako Parlamentuak bere konpromisoa agertzen du Nafarroako auto-gobernuaren aurrerapenaren alde, zeinaren ezauzgarria baita Nafarroaren eta Espainiako Estatuaren arteko egiazko aldebikotasuna berdinen arteko harreman batean, Nafarroako herritarrak izanik bi administrazioen arteko harremanaren esparrua askatasunez definitzen dutenak. Zehazki, azaldutako printzipioekin bat, Nafarroako Parlamentuak hau eskatzen dio Espainiako Gobernuari:

– Ez ditzala oztopatu Nafarroako Parlamentuak onetsitako 113 milioi euroko inbertsioak, Estatuak 2016an eta 2017an gordeta eduki dituen Nafarroako baliabide propioekin finantzatuak.

– Berdinen arteko aldebikotasunari atxikita jardun dezala harreman ekonomikoen esparruan, indarrak gabe utziz aldean arteko akordio librearen gainetik nagusitasun hierarkikoak jartzen dituen arau oro, batik bat Konstituzioaren 135. artikulua.

– Jasotzeko dauden eskumen guztiak transferitzeko prozesua abian jar dezala.

– Oinarrizko askatasunen narriadurari buelta eman diezaiola, behar diren neurriak hartuz preso politiko kataluniarrak askatzeko, parlamentuen aldarrikapen politikoetarako askatasuna errespetatzeko eta gaur egun Estatuan adierazpen-askatasuna nabarmen urratzen duten egoerak onbideratzek.

Hamabigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lana banatzeko neurri zehatzak bultzatuz, hala nola lanaldi indibidualak murriztea, lan-zamen euspina edo aparteko orduak kentzea, gure Foru Komunitateko lan arlo guztietan, eta bereziki Administrazio Publikoan, jakina baita horri lotutako gizarte kolektibo batzuek helburu horretarako lege-proposamenak aurkeztu dituztela berariaz.

Hamahirugarrena. Nafarroako Parlamentuak Gobernu zentralari eskatzen dio lehenbailehen ekin diezaiola Espainiako eta Nafarroako herritarren lan eta gizarte eskubideak eta askatasunak murriztu dituzten lege hauek indargabetzeari:

– Espainiako Konstituzioaren 135. artikulua, eta Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa.

– Lan merkatua erreformatzeko presako neurri buruzko ekainaren 16ko 10/2010 Errege Lege Dekretuaren bidez onetsitako lan erreforma.

– Hasiera batean 2012ko otsailaren 10eko 3/2012 Errege Lege Dekretuaren bidez onetsi zen lan erreforma, gerora, Diputatuen Kongresuak dekretu hori baliozkotu ondoren, uztailaren 6ko 3/2012 Legearen bidez onetsi zena.

– Abenduaren 23ko 23/2013 Legea, Gizarte Segurantzaren pentsio sistemaren jasangarritasun faktorea eta errealizazio indizea arautzen dituen.

– Martxoaren 30eko 4/2015 Lege Organikoa, herritarren segurtasuna babestekoa (Mozal Legea).

– Abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoa, hezkuntzaren kalitatea hobetzeko (LOMCE).

– Apirilaren 20ko 16/2012 Errege Lege Dekretua, Osasun Sistema Nazionalaren iraunkortasuna bermatzeko eta haren prestazioen kalitatea eta segurtasuna hobetzeko premiazko neurri buruzkoa.

– Apirilaren 20ko 14/2012 Errege Lege Dekretua, hezkuntza publikoaren arloko gastu publikoa arrazionalizatzeko premiazko neurri buruzkoa.

– Abenduaren 26ko 17/2014 Errege Lege Dekretua, autonomia-erkidegoen eta toki-erakunde finantza-iraunkortasunerako neurri eta beselako neurri ekonomikoei buruzkoa.

Hamalagarrena.

Nafarroako Parlamentuak erabakitzen du Espainiako Gobernua premiatzea erreferendum deialdia egin dezan, herritarrek demokratikoki

hautatu ahal izateko zein estatu mota nahi duten, monarkia ala errepublika.

Nafarroako Parlamentuak erabakitzen du Diputatuen Kongresua premiatzea Juan Carlos I.a errege ohiaren ondarearen iturrien inguruko ustezko irregulartasunak eta praktika ustelak ikertzeko batzorde bat sor dezan.
